

Maximalismoa nagusi

Osagarri handi eta koloretsuak eramango ditugu aurtengo neguan



**Tamaina handiak
eta koloreak
nagusituko dira
osagarrietan**



EGUNKARIA

Begiradak erakartzea gustuko duten emakumeentzako pentsatuta daude aurtengo neguan modan izango diren osagarriak.

Begiradak erakartzea gustuko duten emakumeentzat pentsatuta daude aurtengo neguan modan izango diren osagarriak. Izan ere, tamaina handia eta kolore deigarriak inposatzen dira osagarrien alorrean, oro har. Beraz, deigarri izatea gustuko baduzu, hobe duzu jarraian datozen aholkuei muzinik ez egitea.

Zapatak

Joera nagusi bi nabarmentzen dira aurtengo neguan: belaunerainoko bota altuak eta kiroletako zapatilak gogora ekartzen dituzten kirol oinetakoak.

- Zapata dotoreagoen kasuan, orkatilaren inguruan lotzen direnak nagusi dira.
- Gizonezkoentzat, ingeles estiloko zapatak bueltan dira.

Neguan eramango da

- Gerriko zabalak
- Poltsa handiak
- Oihalezko loreak
- Bitxi handi deigarriak
- Paparreko txapa eta pinak
- Kolore biziko galtzerdiak
- Galtzerdi berogarriak
- Botak

Has gaitezke jada gimnasioan besoak indartzen, poltsa handiak nagusituko baitira aurtengo neguan. Beraz, auskalo zer ez ote dugun sartuko barruan!!! Materialetan aukerak zabalak dira oso: larru leuna, ile luzedun larrea, *denim*-a... Denetarik aurkituko dugu dendatan.

Gerrikoak

Zabalera guztietako gerrikoak onartzen diren arren; maxi-gerrikoak dira aurtengo negurako modak dakarren berrikuntza nagusia. Emakumearen gerria eta biribiltasunak azpimarraztea dute helburu gerriko zabal hauek.

Eskularruak

Arreta berezia eskainiko die modak eskularruei aurtengo neguan, eta jantzien ezinbesteko osagarri bilakatuko dira. Aukerak zabalak dira kasu honetan ere, baina ukabilerainoko eskularru luzeen itzulera nabarmendu behar da berrikuntza nagusi gisa.

Kapelak

Gehienetan bigarren mailan geratzen den osagarria den arren,

aurten oso kontuan izan behariko dugu, pasarelako izarra izan baita. Era guztietako kapelak ikusi dira desfileetan: errusiar tankerako larruzko txanoak, frantziar kutsuko bisera, *cowboy* kapelak, detektibe estilokoak...

Galtzerdiak

Fantasiatzko galtzerdiak nagusi dira, luzera guztietan. Marrazki ausartak eta kolore indartsuak hobesten dira aurtengo neguan.

- Saredun pantyak, joandako urtean modan jarri zirenak, aurtengo neguan mantentzen dira.
- Berrikuntza nagusi gisa, galtzerdi berogarriak bueltan dira, eta baita, 60ko hamarkadan ohikoa zen bezala, panty-*en* gainean orkatilarainoko galtzerdi motzak jartzeko joera ere.
- Arrosa kolorea da azken moda galtzerdi kontuan.

Bitxiak

Udaran nagusitu zen maximalismoak moda izaten jarraitzen du. Bitxi handiak datoz, eta kolore deigarriak dituzte. Aspaldi ez genituen horren belarritako eta eraztun handiak janzen.

- Arropa eta osagarriak bitxi-ekin jostea moda da halaber. Estilo barrokoa inposatuko da jantzi eta osagarrietan.
- Fantasiatzko gurutzeak modan dira. 80ko hamarkadan nahikosten ziren halako gurutzeak. Orain bueltan dira, arropetan estilo gotikoa hartzea proposatzen duen joeraren eraginez.

Bestelakoak


Oihalezko loreak dira aurtengo neguko modak proposatzen duen berrikuntzarik nabarmenena osagarrien alorrean. Jantzietan bezala, osagarrietan ere jos ditzakegu lore hauek. Eta ondo doaz *look* dotore nahiz informalekin. Oihalean ez ezik larrian ere lor daitezke, eta tamaina guztietakoak ikusi dira pasarelan.

- Paparreko bitxiak ere bueltan dira. Ireki amonaren bitxi-kutxa eta birzikla ezazu paparreko zaharren bat.
- *Denim* estiloarekin batera txapa eta pinak asko ikusiko dira.



URRESTILLA

Erdi kalea, 6 - © 943 81 18 69 • AZPEITIA



BIUR

Erdi kalea, z/g • © 943 15 18 09 • AZPEITIA